

DIRU ITURRIAK

Gure gailuak sortzeko, dirua beharko dugu hasieran eta horretarako, bankuari mailegu bat eskatu beharko diogu. Gure produktua aurrera eramateko laguntza handi bat behar dugulako. Gainera, gure enpresa beste batzuekin kooperentzian arituko denez, haiek ere diru laguntzak emango dizkigute, etekina lortu eta gero itzuliko diegula jakinaraziz.

Produktua sortzeak hainbat gastu edukiko dituenez, hala nola, materialak plastikoa, altzairua, kobrea elektrizitatea, motorra... gastu guztiei aurre egin ahal izateko dirua eduki beharko dugu.

Gure produktua aurrera eramateko gure lokal bat erabiliko dugu, aurrez aurretik erosita dagoena. Beraz, honek ez ditu gastuak ekarriko eta horren dirua beste gauzak aurrera eramateko erabiliko dugu. Aldiz, marketingak gure aurrekontuaren %20 gastatuko du (posterrak, telebista eta irratiko anuntzioak, aldizkarietako anuntzioak...). Honi esker, gure produktua bezeroek ezagutuko dute eta eskaria handituko da.

Bestalde, gure soldatak ere bertatik aterako dira, 5 pertsonentzako. Elkarteei saltzerakoan irabazitako diruaren zati bat gure artean banatuko dugu, hau da, gure soldata izango dena, eta beste zati bat inbertitu egingo dugu, materialak eta beharreko lehengaiak erosten eta produzitzen jarraitzeko.

Gure produktuak prezio finkoa du. Honek esan nahi du beti 47,99€ balioko duela, nahiz eta merkatuaren egoera ona ez izan.

Hasiera batean gure produktua Espainia mailan salduko genuke baina gailuak arrakasta duela ikusiko bagenu, gainerako herrialdeetara zabalduko genuke, gure produktua beste komertzio handietara zabalduz. Beraz, herriaren arabera, prezioa mantenduko da, esaterako:

Estatu Batuetan: 54,63\$

Japonian: 6.188,17 yen

Erresuma Batuetan: 42,76 Libra